

JARDUERA ARTISTIKORAKO HASTAPEN IKASTAROAK

Proiektu-poltsak
osatzeko
deialdia:

- ANTZEZTE ARTEAK
- ARTE PLASTIKOAK
- DANTZA
- ESKULANGINTZA
- IRUDIA
- LITERATURA
- MUSIKA

Vitoria-Gasteiz, 2017ko otsaila

CURSOS DE INICIACIÓN A LA PRÁCTICA ARTÍSTICA

Convocatoria
para la formación
de bolsas de proyectos:

- ARTES ESCÉNICAS
- ARTES PLÁSTICAS
- ARTESANÍA
- DANZA
- IMAGEN
- LITERATURA
- MÚSICA

Vitoria-Gasteiz, febrero de 2017



1.- ARRAZOIBIDEAK

Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saila, Zonetako Kultura Jardueren Atalaren bitartez, zenbait programa bultzatzen ari da gizarte-etxeetan, kulturaren presentzia etengabea izan dadin Vitoria-Gasteizko herritarren eguneroko bizitzan, eta kultura-erabilerak kultur ohitura aktibo bilakatu daitezten. Hori guztia honako alor hauetan: zabalkundea, prestakuntza, sorkuntza eta atse-dena.

Kultura prestakuntzaren alorrean, JARDUERA ARTISTIKORAKO HASTAPEN IKASTAROAK izeneko programa antolatzen du, besteak beste. Ikastaro horien edukiak honako arlo hauetan banatzen dira: arte eszenikoak, arte plastikoak, dantza, eskulangintza, irudia, literatura, musika eta, oro har, iaera artistikoa duten eduki praktikokoak.

Ikastaro horiek emateko hainbat entitate kontratatzen dira jarduera zein den kontuan hartuz, Sailak dituen helburuak hobeto lortuko direlakoan.

Beraz, publizitatearen eta lehia askearen printzipioak bermatzearen, bai eta berdintasunarena eta diskriminazio ezarena ere, sailko zerbitzu teknikoek deialdi publikoa antolatu dute Jarduera Artistikorako Hastapen Ikastaroen proiektuak garatzeko entitateen poltsa bat eratzeko; Administrazioarekin kontratuak egiteko ahalmena duten entitate eta pertsonentzat da deialdia.

2.- XEDEA

Jarduera Artistikorako Hastapen Ikastaroak emateko entitateek aurkeztutako proiektuen poltsa bat eratzeko da deialdiaren xedea. Espezialitateen artean, deialdi honetatik kanpo geratzen dira aretoko eta Karibeko dantzak, berariazko plegu bat eratuko baita horietarako.

Entitatea, deialdi honetan, enpresa, elkarte zein pertsona fisikoa izan daiteke, Administrazioarekin kontratuak egiteko gaitasuna baldin badu eta gaitasun hori egiaztatzeko agiriak aurkeztea baldin badu.

1.- FUNDAMENTACIÓN

El Departamento de Cultura, Educación y Deporte, a través de su Unidad de Actividades Culturales en Zonas, desarrolla una serie de programas en los centros cívicos que pretenden que la cultura sea una constante en la vida diaria de los ciudadanos y ciudadanas de Vitoria-Gasteiz y los usos culturales se conviertan en hábitos activos culturales. Todo ello desde los campos de la difusión, formación y creación, así como en el campo de la cultura lúdica.

En la línea mencionada de la formación cultural, cuenta entre otros programas con los denominados CURSOS DE INICIACIÓN A LA PRÁCTICA ARTÍSTICA, con disciplinas englobadas en los campos de las artes escénicas, las artes plásticas, la artesanía, la danza, la imagen, la literatura, la música y, en general, contenidos prácticos de carácter artístico.

Estos cursos se realizan mediante la contratación de diferentes entidades, con el objeto de lograr una mayor adecuación a los objetivos planteados por el Departamento y en función de la actividad de que se trate.

Para garantizar los principios de publicidad y libre concurrencia, así como el de igualdad y no discriminación, por los servicios técnicos del Departamento se realiza convocatoria pública para la formación de una Bolsa de Entidades para el desarrollo de proyectos para la realización de Cursos de Iniciación a la Práctica Artística, con aquellas entidades y personas que, teniendo capacidad para contratar con la Administración, deseen participar en la misma.

2.- OBJETO

Es objeto de la presente convocatoria la creación de una Bolsa de Proyectos de entidades que aspiren a impartir Cursos de Iniciación a la Práctica Artística, en cualquier especialidad, con la única exclusión de los cursos de bailes de salón y caribeños, objeto de pliego específico.

A los efectos de esta convocatoria, se entiende por entidad cualquier empresa, asociación o persona física siempre que tengan capacidad de obrar, la cual deberá poder acreditarse conforme a lo establecido en la Ley de Contratos del Sector Público.



3.- POLTSAREN IRAUPENA

Proiektuen poltsa hau 2017-2018 ikasturterako sortzen da, eta hurrengo ikasturteerako gerta litezkeen luzatzeko eta zabaltzeko mekanismoak zehazten ditu.

Poltsaren bitartez egiten diren kontratuak ez dira inoiz urte naturalari dagokion aurrekontuko ekitaldiaz gaindikoak izango.

4.- POLTSAREN HELBURUAK, HARTZAILEAK

Proiektuen poltsaren helburu nagusia hainbat ikastaro taxutu eta gauzatzea da; horien bitartez, oinarrien I. eranskinean zehaztutako hartzaileei artearekin, eskulangintzarekin eta, oro har, kulturarekin lotutako diziplinak ezagutu eta horietan aritzeko aukera eman nahi zaie, oinarritzko teknika zehatz batzuk irakatsiz.

5.- PROGRAMAK ETA EDUKIAK

Oinarrien I. **eranskinean** zehaztutakoaren arabera taxutuko dira.

6.- AURREKONTUA

Vitoria-Gasteizko Udalak prezio finko bat ordainduko du, ondoren zehazten den prezioaren arabera. **BEZik gabeko prezioa da**, eta ikastaroari lotuta dauden jarduera guztiak hartzen ditu barnean: prestaketa lanak, ikastaroa ematea, kontrola, bilerak, ebaluazioa, erosketak eta egin beharreko beste edozein jarduera.

2017-2018 ikasturterako prezioa:

- 37,63 euro orduko.

Ikastaroak larunbatetan (15:00etatik aurrera) edo igandeetan (edozein ordutan) badira, orduko prezioari %15 gehituko zaio.

7.- PROIEKTUAK AURKEZTEA

Poltsan sartu nahi duten entitateek 8. oinarrian zehaztutako epean aurkeztu beharko dituzte proiektuak.

Proiekturik aurkeztuz gero entitate eskatzai-

3.- DURACIÓN DE LA BOLSA

Esta Bolsa de Proyectos se crea para la temporada 2017-2018, y establece los mecanismos para su posible prórroga y ampliación en temporadas sucesivas.

Los contratos resultantes de la ejecución de la Bolsa no superarán en ningún caso el ejercicio presupuestario correspondiente al año natural.

4.- OBJETIVOS DE LA BOLSA. DESTINATARIOS

La Bolsa de Proyectos se realiza con la finalidad de diseñar y llevar a cabo la realización de diferentes cursos que permitan poner a disposición de los destinatarios señalados en el Anexo I de estas bases la posibilidad de iniciarse en el conocimiento y práctica de diversas disciplinas artísticas, artesanales o, en general, de índole cultural, mediante el aprendizaje de unas técnicas básicas concretas.

5.- PROGRAMAS Y CONTENIDOS

Según lo señalado en el **Anexo I** de estas bases.

6.- PRESUPUESTO

Se establece un precio fijo a abonar por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, precio que se detalla a continuación y en el que **no está incluido el IVA**. El precio incluye la preparación, desarrollo del curso, control, reuniones, evaluación, compras o cualquier otra actuación complementaria que conlleve el impartir el curso.

Precio para el curso 2017-2018:

- 37,63 euros/hora.

Siempre que el curso se desarrolle los sábados a partir de las 15:00 h (hora de comienzo) o los domingos a cualquier hora, el precio/hora se incrementará un 15%.

7.- PRESENTACIÓN DE PROYECTOS

Las entidades que deseen formar parte de la Bolsa deberán presentar sus proyectos en el plazo señalado en la base número 8.

La presentación de proyectos presupone la acepta-



leak oinarri hauetan ezarritako arau eta betekizun guztiak berariaz eta baldintzarik gabe onartzen dituela joko da.

Proiektuak multzoka aurkeztuko dira, ondoren zehazten diren multzoetan hain zuzen ere, gutun-azal banatan:

- Arte eszenikoak.
- Arte plastikoak.
- Dantza.
- Eskulangintza.
- Irudia.
- Literatura.
- Musika.
- Beste proiektu batzuk (aurreko multzoetan sartzen ez diren proiektuak aurkeztu nahi izanez gero).

Dantzaren multzoan ez dira sartzen aretoko eta Karibeko dantzak, berariazko plegu bat osatuko baita horietarako.

Gutun-azal bakoitzean kasuan kasuko multzoari dagozkion **proiektuak** aurkeztuko dira, oinarri hauetako I. eranskinean zehazten den moduan, eta baita **proposamena aurkezteko orria** ere, II. eranskinean agertzen dena, berrin bete eta gero.

Deialdiaren helburuarekin lotutako proiektuak besterik ez da kontuan hartuko.

8.- AGIRIAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

2017-2018 ikasturteko programazioan sartu nahi diren proiektuak aurkezteko epea 2017ko otsailaren 10ean hasi eta 28an amaituko da, bi egun horiek barne.

Proiektu horiek osatuko duten poltsa **hurrrango ikasturteetarako ere luzatuko da, automatikoki**, besterik esan ezean edo deialdi berria egiten ez bada. Hori dela eta, goian aipatutako epea igarota ere, poltsak **zabalik jarraituko du** poltsan agertzen ez diren edukiak lantzen dituzten **proiektu berriak sartzeko**.

Dokumentazioa hiritarrei laguntzeko edozein bulegotan aurkeztu ahalko da, bai gizarte etxeetan baita San Antonio, 10 helbidean ere, gutun-azal itxi(et)an.

ción expresa e incondicionada por la entidad solicitante de la totalidad de las exigencias y normas establecidas en las presentes bases.

Se presentarán los proyectos atendiendo a la distribución temática ya señalada y en sobres independientes para cada grupo de disciplinas:

- Artes escénicas.
- Artes plásticas.
- Artesanía.
- Danza.
- Imagen.
- Literatura.
- Música.
- Otros proyectos (si se planteasen proyectos de difícil encaje en los grupos anteriores).

Quedan excluidos del grupo dedicado a la danza los bailes de salón y caribeños, objeto de pliego específico.

En cada sobre se incluirá el **contenido de los proyectos** asignados al grupo correspondiente –conforme al esquema que a aparece en el Anexo I de estas Bases–, y el **documento cumplimentado de presentación de la proposición**, incluido en estas Bases como Anexo II.

Sólo se valorarán proyectos que guarden relación con el objeto de la convocatoria.

8.- PLAZO Y LUGAR DE PRESENTACIÓN

El plazo de presentación de proyectos comprende **desde el día 10 al 28 de febrero del año 2017**, ambos inclusive, **para proyectos que se planteen incluir en la programación de cursos de la temporada 2017-2018**.

La bolsa creada con estos proyectos **se prorrogará automáticamente en temporadas posteriores**, hasta indicación contraria o nueva convocatoria, y en todo caso queda **abierto a nuevas incorporaciones** de proyectos novedosos con contenidos no presentes en la bolsa que se puedan presentar con posterioridad a la fecha arriba indicada.

La documentación se presentará en sobre(s) cerrado(s) en cualquiera de las Oficinas de Atención Ciudadana de los centros cívicos o de la calle San Antonio, 10.



9.- PROIEKTUAK BALIOESTEKO IRIZPIDEAK

Oinarrien I. eranskinean ageri dira aurkeztu-tako proiektuak balioesteko irizpideak.

10.- POLTSA OSATZEA

Jarduera Artistikorako Hastapen Ikastaroen Poltsa osatzerakoan aipatu irizpideei jarraituz lortutako puntuazioaren arabera hurrenker hartuko da kontuan.

Garatzen den programazioaren arabera hautatuko dira poltsa osatzen dutenak.

11.- PROIEKTUAK KONTRATATZEA ETA ORDAINTZEKO ERA

Ikastaroak emateko hautatzen diren pertsona fisiko, elkarte zein enpresek Administrazioarekin kontratuak egiteko gaitasuna izan beharko dute. Kultura, Hezkuntza eta Kirol Sailak hala eskatzen badu, gaitasun hori egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte Arlo Publikoko Kontratazioaren Legeak ezarritakoaren ildotik.

Hitzarmenak legeak ezarritakoari jarraiki egingo dira.

Ordainketa faktura aurkeztu eta arduradun teknikoak oniritzia eman ondoren egingo da, Vitoria-Gasteizko Udaleko prozedura orokorrak ezarritako epean.

12.- POLTSAN SARTZEN DIREN ENTITATEEN BETEBEHARRAK

Proiektua egokitu behar izanez gero, teknikari arduradunekin adostutakoari jarraituko zaio.

Aurreikusi ez diren alderdietan, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legean ezarritakoari jarraituko zaio.

13.- ZIGORRAK

Deialdi honetan zehazten diren betebeharrak edota entitateak proiektuan zehazten dituen proposamenak ez badira betetzen, honako zigor hauek ezarriko zaizkio entitate esle-

9.- CRITERIOS DE VALORACIÓN DE LOS PROYECTOS

La valoración de los proyectos presentados se determinará de acuerdo con lo indicado en el Anexo I de estas bases.

10.- FORMACIÓN DE LA BOLSA

De la aplicación de los criterios de puntuación resultará una Bolsa de Proyectos de Cursos de Iniciación a la Práctica Artística que se ordenará según la puntuación obtenida.

Una vez constituida la Bolsa, se procederá, en función de la programación que se desarrolle, a la selección de sus integrantes.

11.- CONTRATACIÓN DE PROYECTOS Y FORMA DE PAGO

Las personas físicas, asociaciones o empresas seleccionadas podrán ser contratadas siempre que tengan capacidad de obrar, la cual deberá acreditarse conforme a lo establecido en la Ley de Contratos del Sector Público, siempre que así lo solicite el Departamento de Cultura, Educación y Deporte.

La contratación se realizará por el procedimiento legalmente establecido.

El pago se hará previa presentación de factura, con el visto bueno del responsable técnico, atendiendo a los plazos establecidos en el procedimiento habitual de pago del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

12.- OBLIGACIONES DE LAS ENTIDADES SELECCIONADAS EN LA BOLSA

En caso de que haya que adecuar el proyecto, ello se realizará conforme a lo acordado con las y los técnicos responsables.

En todo lo no previsto con anterioridad, se estará a lo dispuesto en la Ley de Contratos del Sector Público.

13.- PENALIDADES

En el caso de que se incumplan las obligaciones recogidas en esta convocatoria y/o cualquiera de las propuestas por la entidad en el proyecto presentado, se impondrán previa advertencia y, en su



pendunari, ohartarazi eta, hala badagokio, audientzia eman ondoren:

- Monitoreak justifikaziorik gabe ikastarora ez joateagatik: saio bakoitzeko 200 euro deskontatuko dira.
- Eman ez diren orduak ez errekupe-
tzeagatik: saio bakoitzeko 200 euro des-
kontatuko dira.
- Monitoreak ikastaroa emateko behar
duen prestakuntza maila (edukien zein
hizkuntzaren alorretan) ez izateagatik: en-
titateak monitorea ordezkatu beharko du
eta ordura arte eman diren saio bakoit-
zko 200 euro deskontatuko dira.
- Monitorearen puntualtasun ezagatik, be-
hin eta berriro gertatzen bada: 200 euro
deskontatuko dira.
- Asistentziaren kontrolari eta balorazio-
orriei dagozkien eginkizunak ez betetzea-
gatik: 200 euro deskontatuko dira.
- Ikastaroari dagokion hizkuntza eskolak
emateko eta ikasleekin jarduteko hizkun-
tza bakar gisa ez erabiltzeagatik: 200
euro deskontatuko dira.
- Ikastaroan gerta daitezkeen gorabeheren,
aldaketen eta beste edonolako gertaka-
rien berri ez emateagatik: 200 euro des-
kontatuko dira.
- Entitate esleipendunak proiektuan adiera-
zitako proposamenak ez betetzeagatik:
proposamen bakoitzeko 200 euro des-
kontatuko dira.

caso, audiencia a la entidad adjudicataria, las si-
guientes penalidades:

- Por inasistencia injustificada del monitor/a al
curso: se descontarán 200 euros/sesión.
- Por la no recuperación de horas no impartidas:
se descontarán 200 euros/sesión.
- Por falta de nivel formativo y profesional del
monitor/a para impartir el curso (tanto respecto
a los contenidos como respecto al idioma): la
entidad deberá proceder a su sustitución y se
descontarán 200 euros por cada sesión que ya
se hubiera impartido.
- Por impuntualidad reiterada del monitor/a: se
descontarán 200 euros.
- Por no realizar las labores requeridas en cuan-
to a control de asistencia y cuestionarios de va-
loración: se descontarán 200 euros.
- Por no utilizar el idioma en que se ha progra-
mado el curso como lengua exclusiva de ense-
ñanza y de relación con los/as alumnos/as: se
descontarán 200 euros.
- Por no informar de incidencias, cambios y cua-
lesquiera otras circunstancias no previstas que
se sucedan durante el desarrollo del curso: se
descontarán 200 euros.
- Por incumplimiento de las propuestas plantea-
das por la entidad adjudicataria en su proyecto:
se descontarán 200 euros por cada propuesta.



I. ERANSKINA

JARDUERA ARTISTIKORAKO HASTAPEN IKASTAROAK

HELBURUAK

- Herritarrei hainbat arte jarduera ezagutzen hasteko aukera ematea.
- Prestakuntza eta sorkuntza zabalkuntzarekin lotzea, eta horrela kultura herritar talde ezberdinei hurbiltzea.
- Ezagutzak sakontzea, norberaren gaitasuna garatzea eta aisialdia sormenaren bidez aberastea.
- Herritarrengan ohitura kultural eraginkorak sortzea, aldaketa sozial etengabeak bul-tzatzearen.

DESKRIBAPENA

JARDUERA ARTISTIKORAKO HASTAPEN IKASTAROAK praktikoak dira gehienbat, eta herritarrei artearekin, eskulangintzarekin eta, oro har, kulturarekin lotutako diziplinak eza-gutu eta horietan aritzeko aukera ematen diete, oinarritzko teknika zehatz batzuk irakatsiz.

Ikastaro horien edukiak honako arlo hauetan sartu ahal dira: arte eszenikoetan, arte plastikoetan, dantzari, eskulangintzan, irudian, literaturan, musikan eta, oro har, izaera artistiko eta praktikoa duen beste edozeinetan.

Eskainiko den prestakuntzaren bitartez, ikasleari arte munduko esperientzia eta praktike-tan murgiltzeko teknikak erakutsiko zaizkio, ikastaroa bukatzean, norberaren interesak kontuan hartuta, arlo espezializatuagoetara bideratzeko.

Dena den, ikastaro guztiak ere teknika jakin batean **hasteko ikastaro praktikoak** dira. Ikastaro horiek beste jarduera batzuen bidez (erakusketa, ikuskizun eta lanarekin zerikusia duten ekipamenduetarako txangoak) osatu ahal izango dira.

ANEXO I

CURSOS DE INICIACIÓN A LA PRÁCTICA ARTÍSTICA

OBJETIVOS

- Poner a disposición de la población la posibilidad de iniciarse en diferentes prácticas artísticas.
- Asociar los procesos de formación y creación al de difusión, acercando la cultura a los diferentes sectores de población.
- Ampliar conocimientos, desarrollar las propias capacidades y enriquecer el tiempo de ocio de una manera creativa.
- Crear hábitos culturales activos en los ciudadanos y ciudadanas, a fin de promover cambios sociales permanentes.

DESCRIPCIÓN

Los CURSOS DE INICIACIÓN A LA PRÁCTICA ARTÍSTICA son cursos de carácter fundamentalmente práctico que permiten a los ciudadanos y ciudadanas iniciarse en diversas disciplinas artísticas, artesanales o, en general, de índole cultural, mediante el aprendizaje de unas técnicas básicas concretas que les permitan iniciarse en su conocimiento y práctica.

Los contenidos pueden inscribirse en diferentes áreas temáticas relacionadas con las artes escénicas, las artes plásticas, la artesanía, la danza, la imagen, la literatura, la música o, en general, cualquier otra susceptible de ser considerada como práctica artística.

La formación que se imparte permite dar a conocer al usuario/a una serie de técnicas que le introducen en experiencias y prácticas artísticas para que, una vez finalizado el curso, y en la medida de sus intereses personales, pueda profundizar si lo desea en ámbitos más especializados.

En todos los casos se trata de **cursos prácticos de iniciación** en una determinada especialidad, y pueden ser completados con algunas actividades complementarias como exposiciones y exhibiciones a lo largo del curso, visitas a exposiciones, espectáculos o equipamientos relacionados, etc.



HARTZAILEAK

Lau ikastaro mota bereizten dira, hartzaileen adina kontuan hartuta:

- Helduentzako ikastaroak: 14 urtetik gorako herritarrei zuzenduak.
- Gazteentzako ikastaroak: kasuan-kasuan egoki irizten diren adin-tarteetako gazteei zuzenduak (muga-adinak: 12 eta 30 urte).
- Haurrentzako ikastaroak: kasuan-kasuan egoki irizten diren adin-tarteetako haurrei zuzenduak (muga-adina: 13 urte).
- Familientzako ikastaroak: kasuan-kasuan egoki irizten diren adin-tarteetako haurrei eta horien aita/ama/familako bati zuzenduak. Helduak ez dira laguntzaile soilak, eta jardueran jarrera aktiboa izan behar dute.

Aipatutako adin tarte horiek kenduta, ez dira herritar talde jakin batzuei (emakumeei, hiru-garren adineko pertsoneri, beste edozein talderi) zuzendutako ikastaroak balioetsiko.

Edonork hartu ahalko du parte, ez da eskatuko prestakuntza edo betebeharrak berezirik, aski izango da ezagupenak zabaldu, norberaren gaitasunak garatu eta aisia sormenaren bidez aberasteko gogoia izatea.

Ikastaroak hastapenekoak izanik, ezin da mailarik ezarri, hau da, ezin da ikastaro berezirik antolatu esperientzia dutenentzat edo aurretik oinarritzko mailak egin dituztenentzat.

DENBORA BANAKETA

Aurreikusten den iraupenaren arabera hiru ikastaro mota ezarri dira, gehienbat:

- URTEKO IKASTAROAK: urritik ekainera bitartean.
- SEI HILABETEKO IKASTAROAK: urritik martxora edo urtarriletik ekainera bitartean.
- HIRU HILABETEKO IKASTAROAK: urritik abendura, urtarriletik martxora edo apiriletik ekainera bitartean.

Ikastaroek oro har astean ordu eta erdiko bi saio edo bi orduko saio bat izango dute. Antolatzaileek hala iritziz gero, bestela bana daiteke denbora.

Ikastaroak goizez edo arratsaldean izan daitezke, astegunetan edo asteburuetan.

DESTINATARIOS

Se establecen cuatro tipos de cursos, dependiendo de la edad de las y los destinatarios:

- Cursos para adultos: abiertos a toda la población a partir de 14 años.
- Cursos para jóvenes: para los tramos de edad que en cada caso se estime apropiado, entre los límites de 12 y 30 años.
- Cursos infantiles: para los tramos de edad que en cada caso se estime apropiado, con el límite de 14 años.
- Cursos familiares: para niños/as en los tramos de edad que en cada caso se estime apropiado, y un padre/madre/familiar. Las personas adultas no se consideran en estos cursos meros acompañantes, sino que han de participar activamente en la actividad.

Excluidos estos grupos de edad, en ningún caso se valorarán cursos dirigidos a sectores específicos de población: mujeres, tercera edad o cualquier otro colectivo.

Cualquier persona puede matricularse, no precisando ninguna preparación o exigencia previa, tan solo interés por ampliar conocimientos, desarrollar las propias capacidades y enriquecer el tiempo de ocio de una manera creativa.

El carácter de iniciación de los cursos impide su diferenciación en niveles, por lo que no se pueden plantear cursos para gente experimentada o que ya haya cursado previamente niveles básicos.

TEMPORALIZACIÓN

Con carácter general, se establecen tres tipos de cursos, dependiendo de la duración prevista:

- CURSOS ANUALES: de octubre a junio.
- CURSOS SEMESTRALES: de octubre a marzo o de enero a junio.
- CURSOS TRIMESTRALES: de octubre a diciembre, o de enero a marzo, o de abril a junio.

Los cursos podrán adaptarse en general a una periodicidad de dos sesiones de hora y media por semana, o bien una sesión de dos horas por semana. Estos parámetros generales podrán ser modificados si la organización estima que el curso lo requiere.

Los cursos se pueden desarrollar en horario de mañana o en horario de tarde, entre semana o en fin de semana.



Zenbait kasutan, edonola ere, bestelako iraupena eta aldizkakotasuna duten ikastaroak programa daitezke, baita beste urte sasoi batean ere.

IKASTAROETARAKO SARBIDEA

Izen ematearen bitartez, Vitoria-Gasteizko Udaleko gizarte etxeetako eta kirol instalazioetako jarduera programarako arautua dagoen izen emateko sistemaren arabera.

Ikastaro bakoitzak iraupen zehatza du, aurretik ezarria, baina izen emateak hiruhileko bakar baterako egiten dira, hurrengo hiruhilekoetarako berritu behar direlarik. Horrek honako ondorio hauek dakar, urteko eta sei hileko ikastaroetan:

- Ikasle berriak hartu ahalko dira hiruhileko bakoitzaren hasieran, leku libreak izanez gero. Talde osatuetan ikasle berriak sartze honek ondorioak izan behar ditu ikastaroaren edukietan eta monitorearen jarreran eta metodologian, adaptazioa errazte aldera.

- Ikastaro bat bertan behera gera daiteke aurreikusitako bukaera data baino lehen, matrikula berrituak zein berriak gutxieneko kopurura iritsi ezean.

Ezaugarri espezifikoak dituzten zenbait ikastarotan proposa daiteke ikasle berriei sartzeko aukera ez ematea. Salbuespentzat joko dira ikastaro horiek, eta arrazoiak azaldu beharko dira proiektuetan; ondoren Zonetako Kultura Jardueren Atalak onetsi beharko ditu.

GIZA BALIABIDEAK

Jarduera Artistikorako Hastapen Ikastaroen programa osatzen duten ikastaro guztiak monitore baten ardurapean izango dira uneoro, programazioak ezarritako egun eta ordu-tegietan. Entitate lehiatzaileak behar adina monitore izan beharko ditu, ezartzen diren ordu-tegietan zerbitzua modu onenean emateko. Halaber, entitateak pertsona bat izendatu beharko du, Zonetako Kultura Jardueren Atalarekiko harremanetarako, ikastaroen garapena eta kudeaketari buruzko zeregin guztietarako.

Entitatearen betebeharrak honako hauek

Todo esto sin perjuicio de que, en algunos casos, se puedan programar actividades con otra duración, otras periodicidades y en otros momentos del año.

ACCESO A LOS CURSOS

Mediante inscripción según el sistema de inscripciones en actividades de centros cívicos e instalaciones deportivas del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

Aunque cada curso tiene una duración determinada, prevista de antemano, las inscripciones se hacen para un único trimestre y deben renovarse para los siguientes. Ello implica, en el caso de cursos semestrales y anuales:

- Que en cada nuevo trimestre se pueden incorporar nuevos alumnos y alumnas, si hubiera plazas libres. Estas incorporaciones a grupos ya formados exigen que tanto el planteamiento del curso y sus contenidos como la actitud del monitor o monitora y su metodología de enseñanza faciliten la adaptación sin poner en peligro la buena marcha del curso.

- Que un curso puede suspenderse antes de la fecha prevista si no ha habido un mínimo de matrículas renovadas y/o nuevas.

Para determinados cursos con características específicas se podrá plantear no permitir la incorporación de nuevos alumnos y alumnas. Estas excepciones habrán de especificarse y razonarse en el proyecto y posteriormente contar con el visto bueno de la Unidad de Actividades Culturales en Zonas.

RECURSOS HUMANOS

Los distintos cursos que componen el programa de Cursos de Iniciación a la Práctica Artística estarán atendidos por monitores y monitoras en todo momento y durante todos los días y horarios establecidos en la programación. La entidad licitadora deberá contar para ello con el número suficiente de personas para hacer frente a los horarios establecidos y al desarrollo óptimo del servicio. Igualmente la entidad deberá nombrar una persona para las labores de interlocución en sus relaciones con la Unidad de Actividades Culturales en Zonas, para todas las cuestiones relacionadas con el desarrollo y gestión de los cursos.



dira:

- Esleitutako proiektuak egin deialdi honek ezarritakoaren arabera eta, hala badagokio, teknikari arduradunekin adostutakoaren arabera.
- Ikastaroak proiektuan ezarritako edukiei, metodologiari, materialak erosteko egin beharreko gastuei eta adostutako beste edozein aspekturi jarraituz ematen direla kontrolatu.
- Monitoreak ezin badu saioaren bat eman, beste batez ordeztu, eta hori ezinezkoa bada, denbora beste egun-ordu batzuetan erreperatu, taldearekin eta teknikari arduradunarekin ados jarrita.
- Monitore bat izendatu ikastaro bakoitzean. 4 urte bitarteko haurren kasuan, monitore bat izan beharrean bi monitore izan beharko dira, helduen laguntzarik ez badago.
- Ikastaroaz arduratzen den teknikariari ikastaroan zehar gertatzen den edozein gorabeheraren berri eman.
- Ikastaroetako monitoreek duten prestakuntza maila egokia dela bermatu, bai eta heziketa arloan eta eman behar dituzten espezialitateetan eskarmentua dutela ere.
- Ikastaroak euskaraz eman behar dituzten monitoreek dagokien maila edota titulua dutela bermatu, euskaraz aritzeko gaitasuna ziurtatzearen.
- Proposatzen diren ikastaroak emateko behar adina monitore dutela bermatu, baita baxak eta ordezkapenak egiteko ere, beti ere gaitasun teknikoa eta funtzioak mantenduta.
- Ikastaro guztietarako koordinatzaile arduradun bakarra izendatu Zonetako Kultura Jardueren Atalarekiko harremanetarako, eta horren telefono zenbakia eta helbide elektronikoa eman komunikazioak bideratu ahal izateko. Ikastaroetako monitoreen telefono zenbakiak eta helbide elektronikoa ere emango dira, ahal delarik, edo, bestela, teknikariekiko harremanetarako modua bermatu.
- Ikastaroetan parte hartzen duten ikasleentzat pertsonalei dagokienez, entitate independenteak Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Legeak eta gainerako lege aplikagarriak bete beharko ditu.
- Hurrengo atalean zehazten diren monitoreen eginkizunak kontrolatu eta betetzen direla bermatu.
-

Monitoreen eginkizunak honako hauek dira:

- Ikastaroko saioak eman, proiektuan eza-

Las **obligaciones de la entidad** serán:

- Ejecutar los proyectos adjudicados conforme a lo establecido en la presente convocatoria y lo que en su caso se acuerde con el personal técnico responsable.
- Controlar que los cursos se ajustan a lo presentado en la oferta en cuanto a contenidos, metodología, gastos en materiales y cualquier otra cuestión referente a su desarrollo.
- En el caso de que el monitor o monitora no pudiese impartir alguna sesión, proceder a su sustitución y, si esto no fuera posible, recuperar en días y horas a acordar con el grupo y con el personal técnico responsable.
- Asignar un monitor o monitora para cada curso. En el caso de niños y niñas de hasta 4 años sin acompañamiento adulto se deberán contemplar dos en lugar de uno.
- Comunicar por anticipado todas aquellas cuestiones que puedan incidir de modo relevante en el objeto del contrato.
- Garantizar que los monitores y monitoras que desarrollen las actividades cuentan con un nivel formativo y profesional idóneo para el servicio que se va a prestar y con experiencia en el campo de la formación y en las materias concretas que en cada caso se impartan.
- Garantizar que los monitores y monitoras que desarrollen actividades en euskera cuentan con el nivel y titulación adecuados que les capacitan para impartir los cursos en este idioma.
- Garantizar el personal necesario para cubrir los cursos propuestos y las posibles bajas y sustituciones que se produzcan, manteniendo la capacitación técnica y de funciones de la persona sustituida.
- Designar una única persona coordinadora responsable para labores de interlocución con la Unidad de Actividades Culturales en Zonas, y facilitar un número de teléfono y cuenta de correo electrónico como vías de comunicación. También procurará dar números de teléfono y cuentas de correo electrónico de los monitores y monitoras que vayan a impartir los cursos, o en su defecto asegurar vías de información eficaces entre monitores/as y personal técnico.
- En todo lo referente a los datos de carácter personal de los y las participantes en los cursos, la entidad adjudicataria está obligada a cumplir la Ley de Protección de Datos de carácter personal 15/1999 y resto de legislación aplicable.
- Controlar y asegurar el cumplimiento de las funciones de monitores y monitoras que se especifican en el siguiente apartado.

Las **funciones de monitores y monitoras** serán:

- Impartir las sesiones del curso, ajustándose a



rritako edukiei, metodologiari, materialak erosteko egin beharreko gastuei eta adostutako beste edozein aspekturi jarraituz.

- Saioak puntualtasunez hasi eta egutegiaren, ordutegiaren eta espazioaren ezaggarriak errespetatu, teknikari arduradunek esandakoa betez.
- Ikastaroa egoki emateko behar diren materiala eta azpiegiturak kontrolatu eta zaindu. Hau da, modu egokian erabili, bildu eta hala badagokio gorde horretarako prestatu diren lekuetan, antzeman daitezkeen beharrak komunikatu eta aurretik ontzat eman diren erosketak egin. Halaber, ikastaroa bukatu eta gero inventarioa egin eta teknikari arduradunari eman.
- Asistentzia kontrola bete eta bertaratzen diren ikasleen eta izena eman dutenen zerrendak bat datozela kontrolatu. Asistentzia zerrendak teknikari arduradunari hiru hilean behin (edo eskatzen zaionean) eman.
- Teknikari arduradunak ematen dizkion balorazio-galdetegiak ikasleei banatu eta beteta jaso.
- Euskaraz programatutako ikastaroetan, euskara ez beste erabili.
- Hiruhilekoen hasieran leku libreak betetzeko ikasle berriak sartuko balira taldean, egokitze prozesua erraztu.
- Taldeari aholkuak eman lantzen den gaian gehiago sakontzeko baliabideen gainean.
- Ikastaroan ekintza osagarriren bat egiten bada, jardueraren ardura hartu hasieratik amaierara.
- Antolatzaileen irizpideak eta oharrak aintzat hartu beharko dira une oro.
- Teknikari arduradunari ikastaroa ematean gerta daitezkeen gorabehera guztien berri eman.

Proiektu osoa irakasle bati atxikiko zaio gutxienez eta entitate lehiatzailearen iritziz ikastaroa beren gain hartzeko ahalmena duten beste horrenbeste irakasleri gehienez. Izan ere, ikastaro jakin bat kontratatzen denean proposatu den pertsonak eman beharko du, eta ez beste inork. Ikastaroa hitzartu ondoren eta hura hasi bitartean –edo ikastaroan zehar– horren inguruko eragozpenik sortuko balitz, berehala jakinarazi beharko litzaioke Kultur Jardueren Atalari.

4 urte bitarteko umeei zuzendutako ikastaroetan, helduen laguntzarik ez badago, bi moni-

lo presentado en la oferta en cuanto a contenidos, metodología, gastos en materiales y cualquier otra cuestión referente a su desarrollo.

- Acudir con puntualidad y respetar las características de calendario, horario y espacio asignado, con arreglo a las indicaciones del personal técnico responsable.
- Controlar y cuidar el material e infraestructura necesarios para la buena marcha del curso. Ello incluye utilizarlo de manera correcta, recogerlo y almacenarlo si procede en los espacios destinados al efecto, comunicar las necesidades que se puedan detectar y, en su caso, realizar las compras si previamente han sido autorizadas. Al finalizar el curso, realizar el inventario correspondiente y entregarlo al personal técnico responsable.
- Realizar el control de asistencia de los y las participantes al curso, y la adecuación entre asistentes y listado de inscripciones. Entregar los listados de asistencia al personal técnico responsable trimestralmente o cuando le sea requerido.
- Encargarse de distribuir entre los y las participantes los cuestionarios de valoración facilitados por el personal técnico responsable.
- Utilizar exclusivamente el euskera en aquellos cursos programados en este idioma.
- Facilitar nuevas incorporaciones de participantes en el comienzo de los trimestres, si hubiera inscripciones para ocupar plazas libres.
- Prestar asesoramiento al grupo en cuanto a recursos y medios disponibles que le permitan profundizar en el conocimiento de la disciplina tratada.
- Si el curso comportara alguna actividad complementaria, responsabilizarse de dicha actividad desde su inicio hasta su finalización.
- Seguir en todo momento los criterios y las indicaciones de la organización.
- Informar al personal técnico responsable del curso de todas las incidencias que se sucedan durante su desarrollo.

Todo proyecto estará asignado como mínimo a un monitor/a, y como máximo a tantos monitores/as como la entidad licitadora pueda proponer para asumir el curso en cuestión. De esta forma, cuando se contrate un curso determinado, deberá ser impartido por la persona propuesta, y no otra. Si surgiese algún impedimento en este sentido desde que se acuerda el curso hasta que comienza, o durante su desarrollo, deberá ponerse inmediatamente en conocimiento de la Unidad de Actividades Culturales.

En el caso de cursos dirigidos a niños y niñas de hasta 4 años sin acompañamiento adulto, se debe-



torek hartu beharko dute ikastaroaren ardura.

MATERIAL BEHARRAK

Jarduera Artistikorako Hastapen Ikastaroak gizarte etxeetan eta, zenbait kasutan, kirol instalazioetan emango dira. Ikastaro bakoitzerako Zonetako Kultura Jardueren Atalak zentro, gela, egun eta ordutegi jakin batzuk izendatuko ditu.

Ikastaroa emateko material beharrak hiru motatakoak izan daitezke:

- A. Ikastaroa eman ahal izateko ezinbestekotzat jotzen diren azpiegitura eta ekipoak. Esaterako, argazkilaritzarako gela iluna edo handigailuak, zeramikarako labea, pinturarako astoak, etab.
- B. Guztiek erabil ditzaketen oinarrizko tresna edo materialak, gero zentroan geratuko direnak gehiagotan erabiltzeko.
- C. Norberak erabiltzeko tresnak eta ahi-tzen den materiala.

A eta B multzoei dagokienez, zentro bakoitzak dituen ekipamenduek, proiektua aurkeztuten duten entitateek jarri ahal duten baliabideek eta antolatzaileek beren gain har ditzaketen gastuek baldintzatuko dute ikastaroa. Edozein modutan, behar eta gastu horiek aurreikusi eta Zonetako Kultura Jardueren Atalak onetsi beharko ditu ezinbestean.

C multzoari dagokionez, tresnak eta materialak ikasleen kontura izango dira.

Gizarte etxeei eta bertako guneei buruzko argibideak: www.vitoria-gasteiz.org/gizarteetxeak

AURREKONTUA

Seigarren oinarrian zehaztutakoaren arabera.

PROIEKTUEN EDUKIA

Entitateek nahi adina espezialitatetarako proiektuak aurkeztu ahalko dute.

Proiektuak paperean eta euskarri digitalean aurkeztu beharko dira, eta proiektu bakoitzak gehienez ere 6 orrialde hartuko ditu.

rán contemplar dos monitores/as en lugar de uno/a.

NECESIDADES MATERIALES

La programación de Cursos de Iniciación a la Práctica Artística se desarrollará en los centros cívicos y, en su caso, instalaciones deportivas. La Unidad de Actividades Culturales en Zonas asignará cada curso a un centro en una sala, fechas y horarios concretos.

Las necesidades materiales que conlleva la impartición de un curso pueden ser de varios tipos:

- A. Infraestructura y equipos que se consideren condición previa necesaria para poder plantear el curso. A modo de ejemplo, cuarto oscuro o ampliadoras de fotografía, horno de cerámica, caballetes para pintura, etc.
- B. Herramientas o material básico de uso común y que permanece en el centro para nuevas utilidades.
- C. Herramientas de uso personal y material fungible.

En el caso de las categorías A y B, los cursos están limitados por los equipamientos de cada centro, los recursos que puedan poner a disposición del programa las entidades que presentan proyecto y las inversiones que la organización considere asumibles. A este respecto, las necesidades y gastos habrán de preverse siempre con anterioridad y contar con el visto bueno de la Unidad de Actividades Culturales en Zonas.

En el caso de la categoría C, herramientas y materiales correrán a cargo de los y las participantes.

Más información sobre los centros cívicos y sus espacios: www.vitoria-gasteiz.org/centroscivicos

PRESUPUESTO

Según lo señalado en la Base Sexta.

CONTENIDO DE LOS PROYECTOS

Cada entidad podrá presentar proyectos para cuantas especialidades considere oportuno.

Los proyectos deberán presentarse tanto en soporte papel como en soporte digital, y la extensión máxima de cada proyecto es de 6 páginas.



Proiektu bakoitza eranskinaren azken orrian ematen den eskemari jarraituz aurkeztu beharko da, ezinbestean. Edukiak bi atal hauek izango ditu:

1. **Proiektua bera.** Eskeman emandako puntuak garatuko dira.

2.- **Argibide-orria.** Izena eman nahi duenari ikastaroari buruzko ideia argia ematea izango du xede, modu labur batean. Honakoak zehaztuko dira: deskripzioa, edukia eta gutxi gorabeherako gastua materialetan hiru hilean. Beste edozein ohar edo gomendio ere sar daiteke bertan, izena eman aurretik jakin beharrezkotzat jotzen bada. Argibide-orri honen gehienezko luzera: 900 karaktere.

PROIEKTUEN BALIOESPENA

Irizpide hauek izango dira kontuan proiektuak balioesteko:

- Proiektuaren edukia: 40 puntu gehienez, honela banatuta:
 - Edukiaren garapena: 20 puntu gehienez.
 - Metodologia: 8 puntu gehienez.
 - Jarduera osagarriak: 6 puntu gehienez.
 - Genero, kulturartekotasun eta aniztasun funtzional ikuspegiak aintzat hartzea: 6 puntu gehienez.
- Proiektua aurkeztu duen entitatea: 20 puntu gehienez, honela banatuta:
 - Giza baliabideak eta baliabide tekniko eta materialak: 10 puntu gehienez.
 - Espezializazioa proposaturiko teknikan: 5 puntu gehienez.
 - Entitatearen curriculum: 5 puntu gehienez.

POLTSA OSATZEA

Aipatu irizpideei jarraituz osatuko da poltsa, proiektuak lortutako puntuazioaren arabera hurrenkeran jarrita.

Garatzen den programazioaren arabera kontratatuko dira poltsa osatzen dutenak.

Poltsan dauden proiektuen artean aukeratzeko irizpide hauek hartuko dira aintzat:

- Proiektua zenbateraino egokitzen zaien programazioaren ezaugarriei.

Cada proyecto deberá seguir obligatoriamente el esquema que se establece en la última página de este anexo, estructurando el contenido en dos partes:

1.- **Proyecto**, desarrollando los puntos que en el esquema se especifican.

2.- **Ficha informativa**, cuya finalidad es ofrecer a quien pudiera tener interés en inscribirse una idea concisa y clara de la descripción y contenidos del curso, así como el gasto aproximado por persona que pueda suponer en materiales al trimestre, y cualquier otro aspecto o recomendación que se considere necesario que deba conocerse con antelación a la inscripción. Extensión máxima de esta ficha informativa: 900 caracteres.

VALORACIÓN DE LOS PROYECTOS

Los proyectos presentados se valorarán atendiendo a los siguientes criterios:

- Contenido del proyecto: hasta un máximo de 40 puntos, desglosados de la siguiente forma:
 - Desarrollo del contenido: máximo 20 puntos.
 - Metodología: máximo 8 puntos.
 - Actividades complementarias: máximo 6 puntos.
 - Introducción de las perspectivas de género, interculturalidad y diversidad funcional: máximo 6 puntos.
- Entidad que presenta el proyecto: hasta un máximo de 20 puntos, desglosados de la siguiente forma:
 - Recursos humanos, técnicos y materiales de la entidad: máximo 10 puntos.
 - Especialización en la técnica propuesta: máximo 5 puntos.
 - Currículum de la entidad: máximo 5 puntos.

FORMACIÓN DE LA BOLSA

De la aplicación de los criterios de puntuación resultará una bolsa de proyectos que se ordenará según la puntuación obtenida.

Una vez constituida la bolsa, se procederá, en función de la programación que se desarrolle, a la contratación de sus integrantes.

La elección de proyectos, de entre los de la bolsa, se hará con arreglo a los siguientes criterios:

- Adecuación del proyecto a las características de



- Puntuazio hurrenkera.
- Entitateak duen ahalmena proiektua Zonetako Kultura Jardueren Atalak adierazitako garaian eta eran gauzatzeko.
- Puntuazioen berraztertzea, alor bereko ikastaroak lehiatzaile bakar baten eskuetan gera ez daitezen, ikastaro kopuruak eta puntuazio aldeak kontuan izanik komenigarritzat jotzen bada.
- Aurreko deialdietan parte hartu badu, ikastaroa ematean erakundeak edo monitorea zenbateraino bete dituen baldintza orrian eskatutakoa.

Dena dela, programazioaren beharrak eta interesak kontuan izanik, deialdira aurkeztu ez diren proiektuak baliatu ahal izango ditu Kultura, Hezkuntza eta Kirol Sailak, baldin eta poltsako proiektuetan lantzen ez diren arloetarako badira edo poltsan daudenak horiek emateaz arduratu ezin badira.

la programación.

- Orden de puntuación de mayor a menor.
- Disponibilidad de la entidad para la ejecución del proyecto en tiempo y forma establecidos por la Unidad de Actividades Culturales en Zonas.
- Ponderación de las puntuaciones para evitar la concentración de cursos de una misma disciplina en un único licitador, cuando el número de cursos y las diferencias de puntuación así lo aconsejen.
- Grado de cumplimiento de las condiciones exigidas en el pliego, en la prestación de los cursos, en el caso de haber intervenido en ediciones anteriores.

En cualquier caso, y en respuesta a las necesidades e intereses de la programación, el Departamento de Cultura, Educación y Deporte podrá recurrir a proyectos que no se hayan presentado a la convocatoria, siempre que correspondan a disciplinas no presentes en la bolsa o cuya impartición no se pueda asumir a partir de la bolsa.



JARDUERA ARTISTIKORAKO HASTAPEN IKASTAROETAKO PROIEKTUEK JARRAITU BEHARREKO ESKEMA

Paperean eta euskarri digitalean. Gehienez 6 orrialde.

1.- PROIEKTUA

- IKASTAROAREN IZENA
- EDUKIA GARATZEA
- HARTZAILEAK
- HIZKUNTZA(K)
- METODOLOGIA
- PROPOSATZEN DEN IRAUPENA
- MATERIAL BEHARRAK¹
- JARDUERA OSAGARRIAK ETA TALDEARI ESKAINTZEN ZAIZKION GERORAKO AHOLKUAK (aukeran)
- ENTITATE LEHIATZAILEA ETA HAREN BALIABIDEAK
- KOORDINATZAILE-ARDURADUNA ETA IKASTAROA EMATEKO PROPOSATZEN D(IR)EN PERTSONA(K)²

2.- ARGIBIDE-ORRIA *(gehienezko luzera: 900 karaktere)*

- DESKRIBAPENA ETA EDUKIAK
- GUTXI GORABEHERAKO GASTUA MATERIALETAN, HIRU HILEAN, PERTSONA BAKOITZEKO³

¹ Pleguaren “material beharrak” izeneko atalean aipatzen diren hiru material behar motak bereiziko dira, eta kasuan kasuko aurrekontuak zehaztuko dira.

² Proiekturako aipatutako 6 orrialdeetatik aparte, entitate lehiatzailearen ibilbidea eta monitoreen curriculumak erantsiko dira. Bertan, tituluak, esperientzia eta bestelako datuak zerrendatuko dira, baina ez da fotokopiarik erantsi behar. Fotokopia horiek proiektua kontratatzerakoan eskatu ahaliko dira. Entitateak behin bakarrik aurkeztu ahaliko ditu curriculumak, batera, eta ez proiektu bakoitzean.

³ Pleguaren “material beharrak” izeneko atalean C puntuari dagozkion gastuak.



ESQUEMA QUE DEBE SEGUIR LA PRESENTACIÓN DE LOS PROYECTOS DE CURSOS DE INICIACIÓN A LA PRÁCTICA ARTÍSTICA

Presentar en formato papel y digital. Extensión máxima: 6 páginas.

1.- PROYECTO

- DENOMINACIÓN DEL CURSO
- DESARROLLO DEL CONTENIDO
- PERSONAS DESTINATARIAS
- IDIOMA(S)
- METODOLOGÍA
- DURACIÓN PROPUESTA
- NECESIDADES MATERIALES¹
- ACTIVIDADES COMPLEMENTARIAS Y ORIENTACIÓN POSTERIOR QUE SE OFRECE AL GRUPO (opcional)
- ENTIDAD LICITADORA Y RECURSOS CON QUE CUENTA
- COORDINADOR(A)-RESPONSABLE Y PERSONA(S) PROPUESTA(S) PARA IMPARTIR EL CURSO²

2.- FICHA INFORMATIVA (extensión máxima: 900 caracteres)

- DESCRIPCIÓN Y CONTENIDO
- GASTO APROXIMADO EN MATERIALES POR PERSONA/TRIMESTRE³

¹ Se hará la división entre los tres tipos que se detallaban en el apartado “necesidades materiales” del pliego, y se adjuntará presupuesto en cada caso.

² Fuera de la limitación de 6 hojas señalada para el proyecto, se adjuntarán currículums de la entidad licitadora y de las persona(s) propuesta(s) para impartir el curso. Cada currículum se presentará como una relación de títulos, experiencia y cualquier otro dato relevante, pero no fotocopias acreditativas que, en su caso, se podrán requerir si finalmente se contrata el proyecto. Estos currículums pueden presentarse de manera conjunta una única vez para todos los proyectos que presente la entidad, en lugar de hacerlo de manera repetida en cada proyecto.

³ Gastos correspondientes al punto C del apartado “necesidades materiales” del pliego.



II. ERANSKINA / ANEXO II

JARDUERA ARTISTIKORAKO HASTAPEN IKASTAROAK: ESKAINTZAK AURKEZTEA / PRESENTACIÓN DE PROPOSICIÓN: CURSOS DE INICIACIÓN A LA PRÁCTICA ARTÍSTICA

Proiektua aurkezten duenaren datuak / Datos de quien presenta proyecto

Proiektua aurkezten duen entitatearen tipologia / *Tipología de la entidad que presenta el proyecto:*

- | | |
|---|---|
| <input type="checkbox"/> Enpresa / <i>Empresa</i> | <input type="checkbox"/> Pertsona fisikoa / <i>Persona física</i> |
| <input type="checkbox"/> Elkartea / <i>Asociación</i> | <input type="checkbox"/> |

Sozietatearen izena edo izen-deiturak / *Razón social o nombre y apellidos:*

Nortasun agiria edo IFZ / *DNI o NIF:*

Helbidea / *Dirección:*

Posta kodea eta herria / *Código postal y localidad:*

Telefonoa / *Teléfono:*

Harremanetarako datuak / Datos de contacto:

Izen-abizenak / *Nombre y apellidos:*

Telefonoa / *Teléfono:*

Posta elektronikoa / *Correo electrónico:*

Hitz ematen dut aurkeztutako proiektuak eskaintzaren baldintzak eta oinarrietan agindutakoa betez gauzatuko ditugula, baldin eta proiektuak udalaren programazioan sartzen badira.

Se comprometo a la realización de los proyectos presentados, en las condiciones propuestas y con sujeción a lo dispuesto en las Bases, si la ejecución de los mismos se incluye en la programación municipal.

Vitoria-Gasteiz, (data / fecha)

Eskatzailearen izenpea / *Firma del (de la) proponente*

Ematen ari zaren xehetasunak erakunde honek dituen datu pertsonalen "jardueren kudeaketa eta zabalkundea" fitxategian sartuko direla jakinarazten dizu Vitoria-Gasteizko Udalak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, betetze aldera. Kulturgintzan eta gizartegintzan Udalak antolatzen dituen jardueren kudeaketa, zabalkundea eta sustapena, udal eskumenen alorrean, ahalbidetzea da fitxategi horren helburua. Zure eskubideez baliatu nahi baduzu –dagozkizun datuak ikusi, aldatu, ezeztatu edo kontra agertu-, jo ezazu udal bulegoetara (Teodoro Dublang margolariaren kalea, 25 - 01008 Vitoria-Gasteiz) edo gainerako Herritarrei Laguntzeko Bulegoren batera.

El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, en cumplimiento de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, informa que los datos personales que Vd. nos proporciona serán incluidos en el fichero "gestión y difusión de actividades" titularidad de esta entidad, cuya finalidad es la gestión, difusión y fomento de actividades de interés cultural o social organizadas por el Ayuntamiento en el ámbito de sus competencias. Si lo desea puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiéndose a las Oficinas Municipales de la calle Pintor Dublang, 25 - 01008 Vitoria-Gasteiz, o a cualquiera de las demás Oficinas de Atención Ciudadana.